

## **EMAKUMEOK GURE GORPUTZAREN JABE!!**

### **ABORTUA EZ DA DELITUA, ESKUBIDEA BAIZIK!!!**

#### 1. SARRERA

---

Abortatzeko eskubidea Euskal herriko mugimendu feministaren sorreratik aldarrikatu den eskubidea izan da, leku askotan ere mugimendu feministaren sorrera ekarri zuen aldarria. Emakumeon autonomia eta gure gorputzaren gaineko kontrola aldarrikatzen hasi ziren momentutik abortatzeko eskubidea presente egon zen.

Beraz, urteak daramatzagu gure gorputzaren jabe garela aldarrikatzen. Etenik izan ez duen borroka dugu, emakumeok gure ugalketa eta sexualitatea erabakitzeo askatasuna beti helburu izan duena. Ama eta emaztearen papera hamaika modu ezberdinetan inposatu digun jendarte honi aurre egitea izan da hasieratik mugimendu feministaren zeregina.

Ez al da arraroa gainera, abortuaren eztabaida despenalizazioa eta baldintza sanitario egoki batzuetan egitean zentratu baino printzipio moral abstraktu batzuetan zentratu izana? Bizitzaren alde ateratzen dira, emakume askoren bizitza ezer axola ez zaien berdinak?

Gaur egungo egoeran eta gure aldarrikapenetan sartu baino lehen, garrantzitsua da aurrera eramango dugun borroka honen aurrekariak ezagutzea. Historia pixkat egin dezagun hortaz.

Abortatzeko eskubidearen aldeko borroka ez da borroka isolatu bat izan, emakumeen nahitazeko etorkizuna zalantzan jarri duen borroka baizik. Ama eta emazte izan eta familia zorientsu bat osatzeko bideratua zegoen etorkizuna zalantzetan jarri zuen borroka izarra izan zen. Elkartasun feministaz busti zen borroka, sexu eta klase gatazka azaleratu zituen, emakumeen autogestioa landu eta mugimendu feministaren irudimen bukaezina kaleratu zuena. Eskuindar atzerakoienak ere beldurtu zituen errebolta.

70. urteen hasieran, egoera gogorra zen Euskal Herriko emakumeentzat. Bai Estatu Frantsesean baita Estatu Espainiarrean ere abortua praktikatzea gogor kondenatua zegoen. Egoera honen aurrean ordea emakumeak berehala hasi ziren beren eskubideen defentsan. Hego Euskal Herrian frankismoaren eraginez mugimendua beranduagora arte isilik mantenduko bada ere, bestelakoa zen egoera Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroan.

Estatu Frantsesean, abortuaren aldeko mugimendua indartsu jaio zen 68ko Maiatzeko ikasle mugimenduaren babesean. Baita Euskal Herriko iparraldean ere, batez ere Baiona eta inguruetan. Garai horretan baziren abortuaren alde aritu ziren bi talde, batetik *MPFP* (Mouvement Français pour le planning Familial. 60ko hamarkadan sortuak) eta bestetik *MLAC* (Mouvement pour la libéralisation de l'avortement et de la contraception. 73. urtean sortuak). Hauen helburuak izango dira antisorgailuen hedapena eta nola ez abortu eskubidea emakumeei ziurtatzea. Ondorioz, klandestinitatean abortuak praktikatzen hasi ziren. Egoera arriskutsua izan arren, Baionako zenbait lokaletan eta etxe partikularretan egiten zituzten

abortu interbentzioak. Bi talde hauez gain garai hartan biltzen hasi berriak ziren *Emazteak Iraultzen* taldeak eta bertako zenbait emazte abertzalek ere bat egin zuten abortatzeko eskubidearen leloarekin.

1975ean herritarren eskaerei eta borrokari esker *Veil Legea* onartu zen Frantzian. Lege honek modu klandestinoan egiten ziren abortuak modu formalean eta klinika txukunagoetan egitea ekarri zuen. Abortu ugari hasi ziren egiten eta Hego Euskal Herrian ere errepresioa nagusi zen garai haietan mugimendu feministako kideek hegoaldeko emakumeak iparraldera bideratzen zituzten abortuak praktikatzera. Honela, hegoaldeko eta iparraldeko emakumeen elkartasuna eta konplizitatea handitzen joan zen eta guztien artean abortuaren debekuari aurre egin zioten.

Espainiar estatuan, frankismoa zela eta emakumeen eskubideak zapalduak zeuden. Horren adierazle dugu eskubide sexual eta erreproduktiboen ukazioa bera. Antisorgailuak legez kanpokoak ziren eta abortatzea kartzelarekin ordaindu beharreko delitua zen. Egoera honek, abortuak klandestinitatean egitera eramango ditu emakumeak, etxeko metodoak eta inongo bermerik ez zuten metodoak erabiltzera kondenatuz.

1976an Basaurin 11 emakume atxilotu zituzten. Langileak ziren denak, baliabide eskasekoak, guztiak medikuarengana antisorgailu eske joandakoak. Seme alaba bat baino gehiago zuten eta ezintasun ekonomiko handiak zituzten kide askotako familiak aurrera ateratzeko.

1979an abiatu zen 11 lagunen epaiketa eta egoera honen aurrean, Euskal Herriko emakumeak erantzun bat emateko antolatzen eta kalera irteten hasi ziren.

80ko hamarkadan Euskal Herrian pixkanaka antolatzen hasia zen emakumeen mugimendua eta Basauriko 11 emakumeen kontrako epaiketak mugimenduaren eztanda unea suposatu zuen. Hego Euskal Herriko herri eta txoko guztietan asanblada eta emakume taldeak sortu berri ziren. Hauek bat egin zuten atxiloturiko emakumeekin eta emakumeak kalera atera ziren epaiketen aurka itxialdiak, manifestaldiak eta mila koloretako mobilizazioak eginez.

11 emakumeak, beren etorkizunaren berri jakin gabe egon ziren 1983an absolbitu zituzten arte. Zalantzarik gabe, emakumeek aurrera eramandako borrokari esker izan zen; kateaketak, maniak, autoinkulpazio kanpaina, kontzentrazioak, itxialdiak, muralak, margotzeak ... Euskal herriko txoko guztietan elkartasuna nagusitu zen. Iparraldeko emazteek ere hegoaldeko mobilizazioetan parte hartu zuten eta mugimendu feministaz gain herri eragile ezberdinek ere bat egin zuten epaiketen aurkako borrokan.

Abortu librearen alde egondako mugimenduari esker, Espainiar Estatuan zenbait lege aldaketa egon ziren.

- 1978an, antisorgailuak onartu ziren.

• 1985ean abortua hiru baldintzen arabera onartuko duen legea onartu zen; bortxaketa, fetuaren malformazioa dagoenean eta haurdun dagoen emakumearen osasun fisiko edo psikikoa arriskuan dagoen kasuetan.

Aurrerapauso legal txiki bat egon arren, abortua delitua zen eta da oraindik eta emakumeen mugimenduak lege berria nahikoa ez zenez, abortu eskubidearen alde borrokan jarraitu zuten.

1985eko legearen onarpenarekin, zenbait lekuetan hiru baldintzen arabera abortuak praktikatzen hasi ziren. Legea ordea oso baldintza hertsietara loturik dagoenez abortatzea ez zen (eta ez da!) emakumeok osotasunez goza dezakegun eskubide bat. Gainera herrialde batzuetan hiru baldintzen arabera ere ezinezkoa gertatzen da abortua praktikatzea. Egoera honek, legearen iruzurra agerian uzten du.

Egoera diskriminatzaile honen adibideak ugariak diren arren, badago Nafarroan esanguratsua izan zen gertaera bat. 1989an hasi eta 1990ean aurrera eraman zen Iruñako hiru medikuren kontrako epaiketa hain zuzen ere. Lege hau emakumeontzat iruzurra denaren adierazle izan zen orduko epaiketa.

1985ean legea onartu zenetik hainbat abortu egin ziren Nafarroan, guztiak presiopean, guztiak egoera oso prekarioetan. Baina 1986an, *Accion familiar* erakunde atzerakoiak "querella criminal" bat jarri zuen hiru ginekologo eta mediku baten kontra, ustez legez kanpoko abortu bat praktikatzeagatik. Herritarren presio eta protestak ugariak izan ziren orduan ere eta 1990ean guztiak absolbitu zituen epaiketa bukatutzat eman zen.

Legearen ondorioz eta zenbait lekuetan abortua praktikatzeko aukera izanda, urte batzuetan sotilago bihurtu zen abortuaren aldeko borroka. Hala ere Iruñan jazo zen epaiketak berriro ere aldarrikapena indar guztiakin kalera atera zuen eta beste behin abortu libre eta doakoaren aldeko oihua lau haizetara zabaldu zen. Iruñako kaleak, mobilizazio ugariaren lekuko izan ziren.

Egoera hau zoritxarrez, ez zen soilik orain dela 20 urte gertatu. 2007.urtean, espainiar estatuan emakumeen eskubideen kontrako beste erasoaldi bat egon zen. Klinika pribatuetara sartuz 2000 emakume baino gehiagoren bizitza pribatuak lapurtu zituzten, klinika hauek kriminalizatuz eta emakume asko deklaratzera deituz.

Eraso hau salatzeke eta Euskal Herrian abortu eskubidea aldarrikatzeko manifestaldia egin zen Iruñean, beste behin mugimendu feminista modu bateratuan kalera ateraz. Iruñeako kaleetan herritar mordoa batu zen eta orain 30 urtetako aldarria berriz ere bere egin zuten. Horrez gain urte osoan zehar mobilizazio eta protesta ekintza ezberdinen lekuko izan gara.

## 2. EGOERA LEGALA

---

### ○ **ESTATU ESPAINOLA**

Egun, abortuak kode penalaren baitan jarraitzen du eta hiru balizko egoera zehatzetan izan ezik delitu kontsideratzen da.

Hauek dira abortua legalki praktikatzeko hiru balizko egoerak:

1. **Haurdun dagoen emakumearen osasun fisiko eta psikikoa arriskuan dagoenean.** Egoera honetarako ez dago epe zehatzik.
2. **Bortxaketa kasuan.** Lehengo 12 asteetan abortatu beharra dago. Lege honek bortxaketa ez du gaur egungo kode penalean duen izaera berberarekin jasotzen. Baizik eta dagoeneko indargabetua dagoen kode penal zaharkitu bati egiten dio erreferentzia. Honek esan nahi du zenbait bortxaketa kasu ez direla abortatzeko balizko egoeran sartzen. Hala nola famili barruan gerta daitezkeenak eta beste hainbat.
3. **Fetuak malformazioen bat duenean.** 22 asteen barruan abortatu beharra dago.

Hiru baldintza hauek medikuren batek egiaztatu behar ditu bai sare publiko zein pribatuan. Hau egiaztatuko duena ezin da abortua praktikatu duen bera izan.

16 urtetik berakoek gurasoen baimena behar dute abortatzeko. 2002an "Ley del Paciente" delakoa kaleratu zen eta hortik aurrera 14 urtetik gorakoek edozein ebakuntza kirurgikoen gainean erabakia hartzeko aukera dute kasu bakar batean ezik, abortuaren kasuan.

Nahiz eta legeak osasun sare publikoan abortatu daitekeela adierazi, hego euskal herriko osasun sare publiko osoak eskubide hau eragozten du, bertako langile guztien kontzientzia eragozpenaren bidez. Hortaz, osasun sare publikoak ez du abortatzeko eskubidea bermatzen, ezta legeak onartzen dituen hiru baldintzetan ere.

- **ESTATU FRANTSESA**

Estatu frantsesean, 1975etik aurrera haurdunaldiaren lehenengo 12 asteen barruan abortua legala da. 12. astetik aurrera, amaren osasun fisiko nahiz psikikoa arriskuan dagoenean edota fetuaren malformazio kasuetan bakarrik abortatu daiteke. Abortu kasu guztietan bi medikuren egiaztapena beharrezkoa da.

- **AZKEN GERTAERAK**

Hegoaldean indarrean dagoen abortu legea dela eta azken urteotan jazotako hainbat gertaera garrantzitsu bildu ditugu.

- Abortu eskubidearen kontrako erasoaldi berriak. Azken eraso hauek orain arte mugimendu feministari esker lortutako aurrerapausoak (nahikoak ez izan arren) ere arriskuan jarri ditu.
  - Klinika abortisten kontrako operazio polizialak.
  - 2000 emakume baino gehiagoren bizi pribatuaren kontrako eraso poliziala. Azken urtetan abortua praktikatu duten emakume asko deklaratzera deituak izan ziren.
- Mugimendu feministak erasoaldi berriari erantzunez sortutako autoinkulpazio kanpaina.
- Nafarroako parlamentuan PSNek lege proposamen bat aurkeztu zuen. Betetzen ez zen lege bat betetzeko eskakizunarekin.

- Aukeren kontrako taldeen (provida) ofentsiba: sinadura bilketarako kanpaina proposamena (ILP), azkenean aurrera eraman ez zena.
- Eliza katolikoak familia eredu tradizionalaren defentsan antolatutako ekimen masiboak. (2007-2008)
- PSOE-ren gobernuak lege aldatzeko proposamena irailean aurkeztu zuen, hauteskundetan abortuaren gaia alboratu ondoren. Lan batzorde bat sortu dute eta ez dute emakumeon parte hartzea eta mugimendu feministarena eskasa izan da. Badirudi aurrera begira, 12 – 14 aste bitarteko epeen lege bat egitekotan direla.
- Estatu espainoleko koordinadora feministak antolatutako kanpaina. Irailaren 28an abiatu zen abortuaren despenalizazioaren aldeko sinadura bilketa batekin. Martxoaren 8an lortutako sinadura guztiak Madrilentzako entregatuko dira. (Sinadura bilketaren testua eranskinean dago)

Europa ere eskuineko mugimenduaren aldetik abortu eskubidearen aurkako kanpainak.

### 3. ERREALITATEAREN ARGAZKIA

---

HBEak praktika daitezkeen arren, -emakumeok beharra dugunean abortatzea posible bada ere-, oztopo ugari gainditu behar dira gurea den eskubidea ziurtatu ahal izateko. Nahiz eta jendartean abortuen praktika onartua egon, oztopoa legala da batetik, ekonomikoa bestetik eta azkenik oztopo moral eta etikoaz eta honek sortzen duen presio sozialaz ere hitz egin behar dugu.

Gaur egun hego Euskal Herrian abortua delitu kontsideratzeak, emakumeengan segurtasun falta nabaria sorrarazten du. Emakumeak delitugile egiten gaituzte eta HBEak praktikatzeko dituzten medikuak ere jo puntuan daude.

Eskuina, eliza eta "Pro vida" erakundearen presioari esker eta ezkerrean determinazio falta eta faltsukeriak lagunduta, HBE gehienak osasun sare pribatutik egiten dira. Presio honek eragin nabarmenagoa du Nafarroan, abortuak ez baitira ez sare publiko ezta pribatuan ere egiten.

HBEen gehiengoaren sare pribatuan egiteak emakume asko, batik bat, baliabide eskasekoak, abortatzeko aukeratik urruntzen ditu. Emakume gazte, migrante nahiz aukera ekonomiko urriak dituztenentzat egoera larriagoa da.

Abortuak praktikatzeko direla asimilatua dagoen arren, errealitatean abortatzea ez dago ongi ikusia. Emakumeak HBEa egiten badu, hiltzaile gisa kontsideratua da, amatasunari uko egitea moralki onartezina den gertaera kontsideratzen baita. Moral bikoitz honek (egin ahal duzu baina hiltzaile bat zara!), erruduntasun sentimendua sortzen du.


Gure gorputzarengan tribunal mediku batek erabakitzen duen bitartean emakumeok gure gorputzarengan erabakitzeke eskubidea galtzen dugu.

○ **HAURDUNALDIAREN BORONDATEZKO ETENALDIA (HBE)**

**EAE eta Nafarroako datuak, Osasun Ministeritzak 2007. urteko informetik ateratakoak.**

HBE kopuruak adinka:

	<15	15-19	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	>44	GUZTIRA
<b>NAFARROA</b>	6	89	156	164	136	112	36	1	700
<b>EAE</b>	9	347	706	759	574	403	143	14	2955




**Guztira Hego Euskal Herrian 3655 abortu egin dira.**

HBEak zentroaren arabera:


	NAFARROA	EAE	GUZTIRA
<b>PUBLIKOA</b>	1	181	182
<b>PRIBATUA</b>	699	2774	3473

**Abortatuen %95,02a zentro pribatuetan egin dira. Nafarroan portzentajea altuagoa da, %99,8a. Gainera ez dira Nafarroako zentro pribatuetan egin, herrialde osoan ezin baita abortatu.**




Informazio zentroaren arabera:

	<b>NAFARROA</b>	<b>EAE</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Osasun zentro publikoa</b>	398	1558	1956
<b>Osasun zentro pribatua</b>	110	634	744
<b>Besteak</b>	189	710	899
<b>Ez dago daturik</b>	3	53	56




HBEak praktikatzeko arrazoiaren arabera:

	<b>NAFARROA</b>	<b>EAE</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Amaren osasuna</b>	647	2782	3429
<b>Fetoaren arriskua</b>	51	171	222
<b>Bortxaketa</b>	0	0	0
<b>Besterik</b>	2	2	4
<b>Ez dago daturik</b>	0	0	0



HBEak epearen arabera:

	NAFARROA	EAE	GUZTIRA
<b>8 edo gutxiago</b>	387	1941	2328
<b>9tik 12ra</b>	175	786	961
<b>13tik 16ra</b>	68	63	131
<b>17tik 20ra</b>	46	105	151
<b>21 baino gehiago</b>	24	57	81
<b>Ez dago daturik</b>	0	3	3



**Laburdi, Behe Nafarroa eta Zuberoaren datuak ateratzeko lanean ari gara oraindik, hona hemen Akitania erregioaren datuak 2005rarte.**

	<b>Pyrénées-Atlantiques</b>	<b>Aquitaine</b>
1997	<b>1.577</b>	<b>8.681</b>
1998	<b>1.612</b>	<b>8.937</b>
1999	<b>1.701</b>	<b>9.040</b>
2000	<b>1.705</b>	<b>9.118</b>
2001	<b>1.769</b>	<b>9.511</b>
2002	<b>1.852</b>	<b>9.782</b>
2003	<b>1.813</b>	<b>9.675</b>
2004	<b>1.936</b>	<b>10.198</b>
2005	<b>1.970</b>	<b>9.195</b>

Iturria: DRASS - Enquête SAE

**Ondorioz...**

- Jendarteak, abortua delitua dela ez daki. Gainera, legeak ezkututzen dituen trikimailu eta zailtasun guztiak ez ditu ezagutzen.
- Emakume gazteak dira nagusiki abortatzen dutenak. Datuetan ikus daitekeen bezala eta legean eragiten duten beste lege batzuk aztertuta adierazgarria da 16 urtetik berakoek abortatzeko gurasoen baimena behar izatea.
- Abortuen %95,6 osasun sare pribatuan egiten dira. Datu honek argi erakusten du bakarrik ordaindu dezaketenak abortatu dezaketela. Gainera instituzioek gaiarekiko duten hipokresia azaleratzen du.
- Osasun zerbitzu publikoak kontzientzia eragozpenaren ondorioz ez du abortzateko zerbitzua bermatzen.
- Kontzientzia eragozpena dela eta "turismo abortiboa" deitu zaiona egitera behartzen ditu emakumeak. Orain dela 20 urte Londres edo Parisera joan behar zuten halabeharrez, gaur aldiz Bilbo,artzelona eta kasu batzuetan ere Londresera joatera behartuak daude.
- Abortuen gehiengo balizko egoera berdinean ematen dira, emakumearen osasun fisiko eta psikikoaren arriskua biltzen duen kasuetan.
- Bigarren balizko egoeran, hau da, bortxaketa baten ondorioz gertatutako haurdunaldian, ez dira abortuak praktikatzen. Kasu hauek gertatu ez direla ezin dugu esan, legearen oztupoak medio lehenengo balizko egoeran abortatzen baitu emakumeen gehiengoak. Egoera honek bortxaketa kasuak ikusezin bilakatzen ditu.
- Emakumeen gehiengo batek hasierako asteetan abortatzen du. Beraz, epeen eztabaida faltsuan erortzea ez zaigu zilegi iruditzen gaur egun Estatu espainolean egiten ari diren bezala.

- **OSASUN ZERBITZU PUBLIKOA:**

Abortuaren gaiari osotasunez heltzeko, beharrezkoa da osasun zerbitzu publikoaren eskaintza aztertzea.

Mugimendu Feministak bultzatuta, 80. urteetan, emakumeon osasun sexuan eta erreproduktiboa aztertu, landu nahiz eztabaidatzen zuten planing zentroak ireki ziren. Hauetan zerbitzu ugari eskaintzen ziren eta emakumeentzat oso baliagarriak ziren. Batzuetan diputazio nahiz udalek babesten zituzten planing zentro hauek eta beste batzuetan mugimendu feministak berak kudeatzen zituen.

Estatu espainolean 90. hamarkadan planing zentroen gehiengoak kendu zituzten. Osasun zerbitzu publikoak, planing hauen funtzio eta zerbitzuak beregain hartu behar zituelakoan. Planing zentroen zeregina oinarritzko osasun zentroetara bideratu zen. Urteen poderioz ikusi dugu egungo osasun zerbitzu publikoak ez dituela funtzio horiek modu integralean betetzen.

EAE-n Osakidetzak Berdintasun plan bat onartu zuen, ondorioz osasun zentro guztietan heziketa sexuala garatzea aurreikusten zen. Asmo hau ordea beti atzean geratzen da eta osasun zerbitzu publiko gehienetan ginekologoak soilik aurkitzen ditugu.

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan oraindik ere osasun sexual eta erreproduktiboa lantzen duten zentroen bat geratzen da.

Nafarroan, emakumeen arretarako zentroak deitzen direnak indarrean daude. Emakumeen arretarako zentro hauek, 1978an lehen aldiz planing zentro bat sortu zenetik gaur egun arte egon diren murrizketen ondorio dira.

Esan bezala, Andraize izan zen emakumeek sortutako lehenengo udal planifikazio zentroa. Ondotik beste hainbat etorri ziren eta COFES sarea sortu zen. Hauek emakumeek zituzten behar guztiak asetu ez arren, ideal feministetara asko hurbiltzen ziren, emakumeon eskubide sexual eta erreproduktiboen alde jardun baitziren.

Orain dela hamarkada bat desagertu ziren, emakumeen arretarako zentroi bide emanek. Nahiz eta Nafar gobernutik izen aldaketa huts batekin alderatu nahi izan den, aldaketa sakonagoak eta bereziki murrizketak eman dira. Aurretik egiten zen lan prebentibo eta hezitzailearen ordezkari lan mediko asistentziala egiten da. Gainera sexu hezkuntzarekin harremana daukan guztia hezitzaile sanitario baten esku utzi da, hezkuntza sexualari bigarren mailako garrantzia emanek. Emakume gazteen sarbidea askoz gehiago oztopatu da, ordutegi, prestazio, eta publizitatean emandako aldaketengatik. Pixkanaka hortaz, ugalketara eta gaixotasunetara bideratutako zerbitzu batean bilakatzen ari dira.

Lapurdin berriz, Baionako ospitalean planifikazio zentro bat dagoen arren kontrazepzioa eta abortua lantzen dituzte gehienbat. Horregatik, eta 15 urte eta gero, Baionan "planing familiar" elkarteak sortu berri dute, Pauko elkartearen Lapurdiko hainbat eta hainbat eskaera zituztela ikusita. Sexu harremanak,

bortxaketa, genero indarkeria, abortua eta bikote harremanak dira, besteak beste, "planning familiar" elkarteak lantzen dituen gaiak.

Zuberoan 2005an, Pauko "planning familiar" elkarteak, Maulen adar bat sortu zuen. Nahiz eta hasiera batean zailtasun handiak izan, pixkanaka errotzen ari da.

- **ANTISORGAILUAK ETA HAURDUNALDIAREN PREBENTZIOA**

Nahiz eta heziketa sexuala antisorgailu eta ugalketara bideratua dagoen nagusiki eta orain urte batzuk baino informazio gehiago badugu ere datuek erakusten digute antisorgailuen erabilera ez dagoela orokortua. Beraz, informazio faltagatik batzuetan, eskuragarritasunagatik (prezioak eta hedapena) bestetan edota heziketa desegokiagatik kontzientziario falta nabarmena ematen da. Egoera hau batez ere gazteengan ematen da.

Abortua egin aurretik informazio zentroa erabili duten emakumeak:

	<b>NAFARROA</b>	<b>EAE</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>BAI. Publikoa</b>	221	627	848
<b>BAI. Pribatua</b>	14	241	255
<b>BAI. Bestelakoak</b>	1	17	18
<b>EZ</b>	456	2009	2465
<b>Ez dago daturik</b>	8	61	69

**Abortatu duten emakumeon %67,4 ez da inolako informazio zentrorra joan.**

Oraindik orain hegoaldeko zenbait farmazietan ez dituzte antisorgailuak saltzen.

"Hurrengo eguneko pilula"ri dagokionez, hegoaldean doakoa da eta larrialdi zerbitzuetan edota emakumeen arretarako zentroetan eskura daiteke.

EAE-n osasun zentroetan pilulak amaitzen direnean, errezeta egin eta farmaziara bideratzen zaituzte. Kasu hauetan pilula norberak ordaindu behar izaten du. Farmazia batzuetan kontzientzi eragozpenaren arazoarekin topo egiten dugularik berriz ere. Farmazien eragozpenaz gain, zenbait medikuk ere pilula errezetatzeari eta emateari uko egiten diote.

Erabiltzaileen gehiengoa gazteak izanik, aipatu beharra dago 16 urtetik beherakoek gurasoen baimena beharrezkoa dutela horrek sor ditzaken gatazka guztiekin Nafarroan eta EAE-n medikuaren balorazioaren menpe dago eta gerta liteke ez ematea.

- **HEZKUNTZA SEXUALA**

Euskal herrian instituzioetatik eta hezkuntza zentroetan lantzen den hezkuntza sexuala oso urria da. Askotan, erreprodukziara eta koitora bideratuta dago. Indarrean dauden hezkuntza sexual programak askotan ez dira aurrera eramaten irakasleen borondate falta eta formazio faltagatik. Irakasten den lekuetan

ere hutsune askorekin aurkitzen gara. Zentru batzuetan sexualitatea modu integralean planteatzen badute ere beste batzuetan edukiak heterosexistak eta erreproduzioarekin lotutakoak dira. Sexualitatea koitoarekin bakarrik erlazionatzen da, antisorgailuen informazioa mugatu eta gaixotasunen prebentzioan VIH-ren informazioa bakarrik emanaz.

#### **Desarrollo Legislativo**

*En el ámbito legislativo sólo quedan como referentes los cambios introducidos por la LOGSE, en la que se incorporó explícitamente la educación sexual en el currículo escolar, se favoreció la elaboración de módulos, guías y materiales didácticos específicos, y se impulsó el desarrollo transversal de la educación sexual, aunque con desigual éxito en su implementación.*

*La Ley Orgánica de Calidad de la Enseñanza (LOCE, 2002) supuso un retroceso, al promover exclusivamente una visión reproductivista de la sexualidad. Con la Ley Orgánica de Educación (LOE, 2006) desaparecen del texto las referencias a la educación afectivo sexual.*

*Este vacío no lo cubre, obviamente, la asignatura recientemente aprobada (aunque todavía pendiente de implantar) de "educación para la ciudadanía". Esta asignatura se constituye como un cajón de sastre para muchos temas: la violencia sexista, la inmigración, el cambio climático, todos de gran importancia pero que cada uno de ellos requeriría un tratamiento más extenso y riguroso.*

## 4. ESKUBIDEAK

---

### **Euskal Emakumeon eskubideen karta**

- *Eskubidea gure identitate sexuala edozein izanda ere sexualitatea askatasunez bizitzeko.*
- *Eskubidea gure gorputzaren inguruan askatasunez erabakitzeko eta aukeratzeko.*
- *Eskubidea emakumeon beharrei erantzungo dien osasun zerbitzu erabatekoa eta publikoa izateko.*

### **Eskubide sexual eta erreproduktiboak**

- Emakumeen eskubide sexual eta erreproduktiboak harreman sexual askeak eraikitzeke eskubidea dira. Norekin, noiz eta nola harreman nahi dugun erabakitzeko eskubidea. Eremu sexual eta erreproduktiboan bakoitzaren gorputzaren esperientzia eta bizipenez modu askean gozatzeko eskubidea dira.
- Eskubide sexualak emakume orok bere sexualitatearen kontrola bermatzen duten eskubideak dira. Diskriminazio eta zapalketarik gabe plazererako eskubidea, harreman sexualak izan nahi ditugun edo ez erabakitzeko eskubidea eta informazio egokia eskuragarri izatea.
- Eskubide erreproduktiboak gure gorputzaren eta ugalketa gaitasunaren gaineko erabaki askeak hartzeko eskubideak liriateke. Ama izan nahi dugun

edo ez erabakitzeko ahalmena, zenbat haur eta noiz eta nola izan nahi ditugun aukeratzeko eskubidea izatea lirateke. Haurdunaldi batekin aurrera egin nahi dugun edo ez erabakitzeko eskubidea barne.

## 5. ALDARRIKAPENAK

---

- **ABORTUA EZ DA DELITUA, ESKUBIDEA BAIZIK**
  - Abortua hortaz, eskubide bat izan behar du ez delitu bat. Abortu eskubidearen despenalizazioa urgentziazko eskakizun bat da.
- **ABORTU LIBRE ETA DOHAIN**
  - Ama izan edo ez modu askean erabaki al izateko, abortatzeko eskubidea izatea oinarritzko berme bat da.
  - Eta abortatzea erabaki aske bat izan dadin, nahitaez doakoa eta gizarte segurantzak babestua egon behar du.
  - Osasun zerbitzu publikoak abortatzeko eskubidea bermatu behar du. Zentro guztietan eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jarri behar ditu.
  - Emakume gazteak bere gurasoen baimena behar dute abortatzeko eta ama izateko aldiz ez dute inoren baimenik behar. Emakumeak gure erabakien jabe izan behar gara inoren baimenaren zain egon gabe. Emakume gazteek ere abortatzeko eskubidea dute.
- **ERDITU BAI ERABAKI ERE BAI**
  - Gurea da erditzeko aukera, gurea hortaz, erditu nahi dugun edo ez erabakitzea.
  - Emakumeon gorputza eta horren gaineko kontrola eta erabakia, ez dagokie ez eliza, ez eragile politiko ezta tribunal medikuei ere. Bakoitzak dauka bere gorputza eta bizitzaren gaineko kontrola eta erabakia.
- **SEXUALITATEA EZ DA AMATASUNA**
  - Emakumeon sexualitatea amatasunera mugatu nahi izan du sistema patriarkalak. Horren aurrean mugimendu feministak behin eta berriro kontrakoa ozen aldarrikatu du. Pertsona orok dugu gure gorputzaz gozatzeko eskubidea eta ez da zertan erreprodukziora mugatu behar.
- **HEZIKETA SEXUAL INTEGRALA**
  - Jaso dugun heziketa sexuala oso murrizta da, bakarrik antisorgailuen inguruko informaziora murrizten delarik. Honen aurrean sexualitate eredu berri bat sortzeari begira heziketa integrala izatea beharrezkoa

da. Integrala izan behar dela diogunean sexu harreman anitzak eta askeak sortzeko tresna izateaz ari gara.

- Emakumeok harreman eredu heterosexistarekin apurtu eta harreman berriak eraikitzeko tresnak nahi ditugu.
- Gazteengan kontzientzia sortzeko, haien arteko eztabaida sustatzeko espazio eta neurriak behar ditugu.

**Guzti hau berma dadin, urgentziaz abortuaren despenalizazioa ezinbestekoa da. Emakumeok abortu libre eta doakoa eta gizarte segurantzak babestuta behar dugu.**

***Euskal Herriko Bilgune Feminista 2009ko Urtarrila***

○ *Koordinadora estatalaren lege proposamena*

Las mujeres tenemos la capacidad de poner en el mundo nuevas personas, nos corresponde a nosotras decidir si queremos o no hacer uso de ella. Al exigir la legalización del aborto no hacemos sino defender nuestro libre derecho a decidir si deseamos o no tener hijos, cuántos y en qué momento.

Creemos que esta Ley no será más que un pequeño paso en esta dirección, si no se acompaña del libre acceso a la más amplia información sexual que plantee las diversas formas de expresión de la sexualidad (las relaciones heterosexuales, las lésbicas y las homosexuales), y no la reduzca a la relación sexual entre hombre y mujer centrada, además, casi exclusivamente en el coito; si no se nos proporciona el acceso libre y gratuito a todos los métodos anticonceptivos (incluida la vasectomía y la ligadura de trompas); si no se desarrolla la investigación de nuevos métodos anticonceptivos que no afecten a la salud de las mujeres así como de anticonceptivos masculinos.

Art. 1. La decisión de la maternidad es un derecho personal e íntimo de toda mujer, con independencia de su edad, estado civil o nacionalidad. La interrupción libre y voluntariamente decidida del embarazo es un derecho que toda mujer tiene.

Art. 2. El Estado deberá garantizar el ejercicio de este derecho que deberá realizarse de acuerdo a las condiciones previstas en esta Ley.

Art. 3. Podrá abortar toda mujer que lo desee, independientemente de su edad, estado civil o nacionalidad, a petición propia, sin más requisito que el de solicitar en los centros sanitarios la intervención médica adecuada.

Art. 4. Una vez presentado en el centro correspondiente el certificado de embarazo y la solicitud para la interrupción del mismo por parte de la interesada, ésta deberá ser informada de las diferentes técnicas que le pueden ser aplicadas, debiendo quedar explícito que el método menos nocivo para su salud es, hasta las 12 semanas, por aspiración (método Karman). Una vez informada, la decisión sobre la técnica a utilizar corresponde a la mujer.

La intervención tiene carácter de urgencia y deberá ser llevada a cabo en los siete días siguientes a la presentación de la solicitud.

Art. 5. Después de la intervención, la mujer permanecerá el tiempo de recuperación necesario en observación para la previsión de posibles complicaciones.

Art. 6. Los Centros de la Sanidad Pública están obligados a disponer de los medios suficientes para atender las demandas de interrupción del embarazo, dado su carácter de urgencia, sin que el personal sanitario pueda, bajo ningún pretexto, negarse a ello, siendo penalizada la falta de asistencia o el retraso de la misma.

Art. 7. En los Centros de la Sanidad Pública, las intervenciones serán gratuitas para todas las mujeres que lo soliciten.

Art. 8. Deberá garantizarse a toda mujer el derecho a su intimidad, quedando su historial clínico sometido al secreto profesional.

Art. 9. En todos los Centros de Sanidad Pública deberá facilitarse la participación de los grupos feministas para garantizar que, en ningún momento, se limiten los derechos de las mujeres y poder proponer, en su caso, las modificaciones oportunas para su mayor eficacia.

Disposición adicional.

Serán punibles los abortos realizados contra la voluntad de la mujer, los que sean producto de unas condiciones inadecuadas de trabajo, los que resulten de la negligencia y los ocasionados como consecuencia de una conducta lesiva contra la integridad física de la mujer.

○ *MANIFESTUA:*

---

## **ABORTATZEKO ESKUBIDEAREN ALDE KALERA!!**

### **EMAKUMEONA DA ERABAKIA**

Berriz ere kalera irten eta espazio publikoa berreskuratu dugu. Aspalditik datorkigun eskubidea da, beronen defentsa gure taldeen oinarrian dago: abortua libre eta doan.

Abagune honetan, non 2.000 emakumetik goraren bizi pribatuaren aurkako eraso polizial eta errepresiboa ematen ari den. Emakumeok eskubiderik oinarritzkoena, norbanakoaren gorputza kontrolatzekoa, praktikan jartzeko pasa dira kliniketatik.

1985ean onartutako Legearen aplikazio zehatza eta hitzemandako honen moldaketa atzeratzeko gobernutik egiten ari diren maniobrak **SALATZEN DITUGU**. Abortua delitu bezala mantentzen jarraitzeak mugatua bihurtzen du, baina ez honek bakarrik. Hiru balizko arrazoien praktika ere, dohainik eta emakumeontzat garantia guztiekin, gero eta zailagoa da aplikatzen zentro publikoetan.

Emakumeon eskubide sexual eta erreproduktiboak ezabatu eta zapalduak izan dira eskukada bat boto eta soldata handiz hornitutako besaulki batzuegatik. Eliza katolikoak, era erasokor eta inkisitorialean, berriz ere eskenatoki elektoralak estutzen du gure bizietan muturrak sartuz, askatasunen deuseztatpenarako argumentuak erabiliaz.

Ez da emakumeon eskubideak beteak izango direla ziurtatzen. Aitzitik, HNEak ez dira zentro publikoetan praktikatzen; ez da doan; oztopo mediko eta juridikoen lasterketa bat da; eta, azkenean, guardia zibilaren eskutik emakume eta profesionalak atxilotuaz amaitzen den tranpa maltzur bat izaten amaitzen du.

Basauriko epaiketa ospetsua dugu gogoan Euskal Herrian, non jendarte osoa mobilizatu eta abortuaren zatitako despenalizazioarekin amaitu zen. Diktadura frankistaren hondarrak zirela pentsatu nahi genuen. Bere ondorengoek emakumeon eskubideen aurka egiten duen jendarte kontseraboreena bere egin dutela egiaztatu da orain.

Oraindik orain, lege berriarekin ikusi dugu nola abortu gehienak klinika pribatuetan egiten diren. Zentro publikoetako analisi eta informe medikuen bide luze eta zailak emakumeak asistentzia azkar eta egokiagoaren bila zuzentzen ditu. Zentroetako profesionalen gain, berriz, botere judicial eta polizialaren mehatxu konstantea eta legea hausten ari diren etengabeko ustea dago.

Nafarroan are okerragoa da egoera. UPNren gobernua, PSN-PSOEren laguntzaz, legearen aplikazioa oztopatzen ari da eta egungo estatuko legislazioa ez du betetzen.

**HEMEN EZIN DA ABORTATU.**

**HEMEN, OSASUNGINTZA PUBLIKOA KLASE MEDIKO ATZERAKOIENAREN PLAZA PROPIOA DA.**

**HEMEN EZ DIRA EMAKUMEON ESKUBIDEAK ERRESPETATZEN.**

**HEMEN GIZA ESKUBIDEAK URRATZEN DIRA.**

**EUSKAL HERRIAN EMAKUMEOK EZIN DUGU GURE GORPUTZARI BURUZKO ERABAKIRIK HARTU, ABORTUA EZ DA EZ LIBREA EZ DOAN.**

Ez gara isilduko. Ez gaituzte isilduko. Kalera batera eta aldarrikatzaile irten gara UPNren gobernuaren praktika legeausleak salatzeke. Gogoz kontrako haurdunaldiak gutxituko dituen sexu hezkuntza eta orientazio programen falta salatzeke. Familia harreman eredu heterosexualaren inposaketa salatzeke. Botere judiziala eta etxe zein klinika pribatuetara sartuz erabiltzaileen historia eta biziak bahitzen dituen polizia salatzeke. Ez gara promesa elektoralen bidez engainatzen utziko abisatzeko: **Abortua libre eta doan orain!!!! Gu erditzen gara, guk erabakitzen.**

- Sinadura bilketarako erabiltzen ari diren testua:

---

**POR LA DESPENALIZACIÓN DEL ABORTO Y UNA LEY QUE GARANTICE EL DERECHO DE LAS MUJERES A DECIDIR**

Las mujeres y los hombres abajo firmantes, consideramos que la actual normativa sobre el aborto:

- Condiciona la decisión de la mujer respecto a la interrupción de su embarazo a la opinión y decisión de terceras personas.
- Genera gran inseguridad jurídica tanto a las mujeres que interrumpen voluntariamente su embarazo como a las y los profesionales sanitarios que realizan las intervenciones que se ven sometidos a denuncia y persecución por quienes tratan de limitar los derechos de las mujeres.
- Dificulta el acceso al aborto, al establecer barreras económicas y sociales ante la ausencia de centros públicos en los que poder abortar y ante la falta de mecanismos ágiles y normalizados de información respecto al aborto.
- Sitúa la práctica de la interrupción del embarazo dentro de la red sanitaria pública en el marco de la marginalidad, favoreciendo la objeción de conciencia y la inhibición de muchos profesionales de la red pública, al

tiempo que deja indefensos a quienes practican los abortos tanto en la red pública como en la privada, al no establecer garantías y protocolos que los respalden.

Es por tanto una normativa que no respeta la autonomía reproductiva de las mujeres y su derecho a la atención a su salud.

Consideramos que la interrupción voluntaria del embarazo se tiene que realizar en condiciones de legitimidad, seguridad y legalidad, adoptando las Administraciones las medidas necesarias para que la decisión de la mujer pueda hacerse efectivas. Por ello,

#### RECLAMAMOS:

1. Un cambio legislativo en el que el aborto deje de estar tipificado como delito y por tanto regulado en el Código Penal, y pase a estar regulado como el derecho que tienen las mujeres a interrumpir voluntariamente su embarazo y a decidir sobre su maternidad.
2. Una ley que reconozca y garantice el derecho a la autonomía reproductiva de las mujeres, estableciendo su decisión personal como causa exclusiva para la interrupción de su embarazo.
3. El reconocimiento preciso y claro de este derecho, de forma que su práctica no se vea condicionada ni obstaculizada por la valoración y juicios morales de terceras personas o por la ausencia de servicios en la red sanitaria pública.
4. La cobertura de la interrupción voluntaria del embarazo en la red hospitalaria y extrahospitalaria pública de forma que se garantice el carácter universal de este derecho, y se normalice como prestación sanitaria.
5. Una regulación de la objeción de conciencia que precise sus límites, acompañada de una disposición que establezca la imposibilidad de objeción por parte de Instituciones y Administraciones, y que garantice que todos los centros públicos dispongan de los equipos de profesionales necesarios para atender la demanda de aborto de las mujeres,
6. El respaldo y apoyo institucional a las y los profesionales que practican los abortos tanto en la red pública como en la red privada.
7. Que la nueva ley vaya acompañada de políticas y medidas integrales en salud sexual y en salud reproductiva basadas en el reconocimiento de los derechos sexuales y reproductivos.